



BONI ETA BITTOR (G.B.)

*Boni ta Bittor lagun maiteak
jun ziran mundu ontatik
Eta «Oarso» aldizkaria
utsune aundiz utzirik
Ez geigo bion lanik
daukagu ikusterik
Gure aldizkari ontan
lan ugaria egin zenuten
beretzat urte askotan.*

*Erriarentzat diraden lanak
gutxi dira esagutzen
Orrengatikan zuen izenak
gaur emen ditut azaltzen
Zuen lanak goratzen
beren lekuan jartzen
Jakin dezaten guztiak
«Oarso» alde gure errian
eindako lan ugariak.*

*Erreiteitarrak jaiotzetikan
zeuen errien maitale
Azaldurikan zuen bizitzan
ziñastela bere zale
Lanean bere alde
atzera egin gabe
Bera goratu naiean
zuen antzeko gutxi dirade
oraintxe gure artean.*

*Zuen langintza ona izantzan
gure aldizkarirako
Eta beretzat eindako lanak
beñe ez ditu aztuko
Ondorengoantzako
Erakuskisun asko
Biok utzi zenituzten
saia gaitean gure lanean
zuek bezela izaten.*

*Zuzendaritza eraman zendun
zuk Boni «Oarsorena»
Azaldurikan neke lan artan
bearrezko dan kemena
Argi zure almena
egiñikan aurrera
Arazo zail guztietan
kaleratzeko aldizkaria
urtero Magdalenetan.*

*Eta zu Bittor idazlanetan
erabillirik Euskera
Azaltzen zendun zuretzat zala
berau gauzik ederrena
Erakus nairik bera
euskaltzale antzera
Saiatu ziñan edonun
Euskera alde zure lanetan
izandu zera eredun.*

*Izan dedilla esker onena
«Oarso»ren izenean
Zeru goi ortan arki zaitezte
betiko zorionean
Zuetzaz oroitzean
jarrai zagun lanean
Begiratzuz bieri
maite ditzagun zuek bezela
«Oarso» ta Errenteri.*

XABIER